

Juantxo Maya Mikelarena

Herriari eta kulturgintzari emana

Zure jendea



90. hamarkadan, Euskal Dantzarien Biltzarrak Juantxori eskertza ekitaldia egin zion.

Juantxo Maya Mikelarena 1951. urtean jaio zen Errenterian. Oso gaztetandik gizarte zein politika mugimenduetan jardun du, baina bereziki nabarmentzekoa da azken 30 urtetan, atsedetik gabe, Errenteriako kulturgintzan egindako lana. Bere ekimenez sortu eta gauzatu dira Errenterian egun oso finkatuta diren ekimenak, eta ekimen horietatik abiatutako dinamika ugari ere. Eta aurten, 2018. urtean, Juantxok, gorputz eta arima eskainiz, gauzatu dituen ekimenetako askok urteurren garrantzitsuak ospatzen dituzte, esate baterako: Erromeria Egunak, 20. urtemuga; Dantzari Txiki Egunak, 30. urtemuga; Gipuzkoako Aurreskulari Txapelketak, 30. urtemuga; Bertso Festak, 20 urte edizio igaro berri...

Ekitaldi horien guztien (eta beste askoren) sorreran eta gauzatzean arima jarri du Juantxok, eta gaur egun ere horietan burubelardi jarduten du lanean. Haren inguruan lankidetzan jarduten direnek dioten moduan: “Motore bat da, bera da beti lehen deia egiten duena, denak martxan jartzen gaituena... edozein beheraldi dagoenean guztiak esnatzeko deia egiten duena... Eta nekazina da!!”. Dendariek, elkarte gastronomikoetako kideek, udal teknikariek, elkartekideek... go-goan dute segur aski. Izan ere, ekitaldi bat aurrera ateratzeko ekimenean nekazina da. “Egin behar dela sentitzen duenean eginahalak egiten ditu; berdin dio horrek eskatzen duen ahalegina. Juantxorentzat egin behar horrek du lehentasuna eta lortu arte ez da gelditzen, behar den guztia ematen du: lanorduak, baliabideak... Dena”.



*Austrian, Josu Ibarguren taldekide
nekaezina lagun duela*



Belgikan, herriko dantzari gazteak lagunduz

Azken urteetan, Ereintza Dantza Taldeko dinamikan txertatua dihardu, baita Landare eta Erein Elkartean ere. Zenbatezinak dira berak sustatutako eta gauzatu arte buru-belarri butzatu dituen kultur ekitaldi andanak: Erromeria Eguna, Bertso Festa, Gipuzkoako Aurrekulari Txapelketa, Dantzari Txiki Eguna, Udaberri Jaia... Gazteentzako kultur zein kirol lehiaketa eta erakustaldiak, Errenteria Dantzan, herriko gazte eta atzerriko herrialde ezberdinen arteko kultur trukaketak... eta parte hartu duen batzorde andana ere: Errenteriako inauteria (Azeri Dantza eta Sardina Ehorzketa), Gipuzkoako Dantza Solte Txapelketa, Errenteriako Dantza Eskola, ikuskizunen antolakuntza (Nomadak Tx, Hostoak, Herritmo...) eta abar.

Ekintza hauek herrian piztu eta iraunarazi izana bada nahiko meritu, baina ekintza hauek sortu duten oihartzuna eta jarraipenak dinamika oso garrantzitsuak ekarri dituzte oihartzun gisa. Herrian zein herritik kanpo. Adibide gisa,

Erromeria Egunaren arrastoan plaza dantzen giroak izandako bultzada, Errenteriako txapelketen ostean aurrekulariak 90. hamarkadan izandako pizkundeak eta abar, eta abar.

Horietan guztietan irmo, temati... baina batez ere lagunkiro jarduten du. Taldea sustatuz, beti taldearen zerbitzura jarriz.

Euskal kulturaren pizkundera eta transmisioa izan du beti aldarri nagusi. Herri eta aberiarekiko bere ekarpena horretara bideratuz, eta azken urteetan begiz jota du lan hori gazteen artean hedatzea. Horretan dabil, buru-belarri, Ereintza Dantza Taldearen baitan gazteengan kulturzaletasuna, atxikimendua eta ardura sustatu nahirik, lantaldeetan bere esperientzia haiekin konpartituz.

Itzaleko langile porrokatua, jende aurreko agerraldietan baino barne-lanetan jarduten dena, eta egun lan hori guztia belaunaldi be-



Beti dantzaren inguruan, eta inoiz dantzatu gabe. Erromeria Egunean salbuespena egin zuen behingoz!

rrien esku uzteko ahalegin handia egiten ari dena. Herrian martxan diren dinamika asko eta askoren pizkundera hari zor diogu, eta etorkizunean jarrai dezaten gazteekin egiten ari den transmisio lana ere bai.

Egin duzun guztiagatik, egiten duzun guztiagatik eta transmititzen diguzun guztiagatik eskerrik asko!!!!

